

FAMILENTZAKO DEKALOGOA

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da ikastetxeetan segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

1. Haurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute.
 2. Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
 3. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldez aurretik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
 4. Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eraturaz.
 5. Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunean erabiltzeko higie-nebaldintzak bermatzeko dituenak.
 6. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarritzko higie-neohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
 - ikastetxeko seinaleak errespetatzea
 - maskara erabiltzea
 - eskuak garbitzea
 7. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
 8. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
 9. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jarduerari buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
 10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.
- Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez.

Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria>

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

